



NEREA ETA ANDONI PALA MEMORIALA 2022

Aurkezpena

Nerea Iribar eta Andoni Galarragaren lagunak gara. 2021ean hainbeste maite eta estimatzen genituen bi lagun oso on galdu genituen, oso gazterik, eta kolpe gogorra izan zen inguruko guztiontzat.

Nerea zein Andoni kirolzaleak ziren, eta biek konpartitzen zuten afizioetako bat ziren palak. Hori horrela, 2022 honetan hasita, urtero bien omenaldi modura, pala memoriala antolatuko dugu herrian. Kirola eginez, elkarrekin elkartu eta gure lagunekin oroitzeko, omenaldi polit bat eskainiz eurei.

Pala memorial honen bidez, gure arteko laguntasunak loratzen jarraitzea nahiko genuke, eta goiz-pasa polit eta hunkitu bat igaro. Memorialan eta bihotzetan mantentzen den inor ez baita inoiz guztiz hiltzen...

Memorialaren ezaugarriak

- Pala memoriala ekainaren 11n izango da, goizeko 9:30etan.
- Goiz bateko jarduera izango da, eta 15:30 alderako amaitzea aurre-ikusten da.
- Eguraldia lagun herriko frontoian burutuko da. Baina eguraldi txarra balego, polikiroldegian izango litzateke.
- Bikote mixtoek hartu ahal izango dute parte, hau da, neska eta mutil batez osatuek.
- 16 urtetik gorako edonork hartu ahalko du parte.
- Partiduak eliminatoria bidezkoak izango dira. Hau da, irabaziz gero aurrera jarraituko luke bikoteak, eta bestela kalean geratuko lirateke.
- Gehienez 16 bikotek parte hartu ahalko dute.
- Guztira 15 partidu izango ditu memorialak: 1/8etako 8 partidu + 1/4etako 4 partidu + 1/2etako 2 partidu + Finala
- Parte hartzaile kopuruaren arabera, partiduak 10, 12 edo 16 tantora izango dira.
- Epaila bat egongo da memorialean, zalantzazko jokaldiak argituko dituena.

- Haurrentzako txoko bat ere jarriko da frontoian, familian gerturatu nahi dutenek erraztasunak izan ditzaten.

Izen-emateak

- Izen ematea doakoa izango da, eta mail bidez egin beharko da: palamemoriala@gmail.com
- Maiatzaren 4an irekiko dira izen-emateak eta maiatzaren 31n itxi.
- Izena ematerakoan, bi partaideen izen-abizenak, telefono zenbaki bat eta kamixetaren talla zehaztu beharko dira.
- Izen-emateak ordenaren arabera onartuko dira. Hau da, izen-ematen lehenak diren 16 bikoteek hartu ahalko dute parte.

Opariak/Sariak

- Parte hartzaile guztiek memorialerako espreski egindako kamiseta tekniko bat jasoko dute.
- Horrez gain, finalera iristen diren bi bikoteek, memorialeko laguntzaileek eskainitako detaile bana jasoko lukete.

Antolatzailea / Laguntzaileak

- Antolatzailea: Nerea eta Andoniren lagunak
- Laguntzaileak:
 - Getariako Udala
 - Getariako Keta
 - Itxaspe taberna
 - Kabian
 - S.I.Z.
 - Txikota ikus-entzunezkoak
 - Gure Txeru
 - Indaux-eko langileak